




Haur, nerabe eta gazteen sustapena

sare sozialetan aurkezteko gomendioak





SARRERA	3
OROKORRA	4
• Sarean presentzia izateak dituen onura nagusiak	4
• Estiloari buruzko irizpide nagusiak	4
PLANGINTZA	6
• Egoeraren analisisa	8
• Helburuak eta hartzailleak	8
• Sare sozialak aukeratu	8
• Plangintza egin	9
• Kronograma	9
• Aurrekontua	9
• Ebaluazioa	9



Sarrera

Gida honen helburua da haur, nerabe eta gazteen sustapena sare sozialetan aurkezteko gomendioak, beharrezko informazioa eta laguntza ematea. Ugari dira gure arloan sare sozialak erabiltzeko arrazoiak. Garbi dago, gaur egun, gure hartzaileengana iritsi eta gure helburuak bete nahi baditugu, ezinbesteko ditugula.





Honakoak dira HNGen sustapen-arloan **sare sozialak** erabiltzeak dituen **abantaila nagusiak**:

- Gure arloan egiten dugunaren berri ematea, HNGen sustapena ezagutzera ematea. Egiten dugun lana komunitatean ezagutzera emateko bide bat da, gure lana haintzat hartu eta aliantza berriak sortzeko.
- Gertutasuna. Gure hartzaileekiko interakzioa sustatzea baliagarria izan daiteke haiekin harremanak sortu eta indartzeko.
- Programak jende gehiagorengana heltzea. Gure jardueren difusioa eta sentsibilizazio-kanpainak egiteko ezinbesteko tresna da.

Gure zerbitzuek sare sozialetan dituzten **profilak** gure lanaren erakusleho garrantzitsua dira eta, hortaz, beharrezkoa da horiek zaintzea. Edozein sare sozialetan kontu bat sortzen badugu edo dagoeneko baldin badugu, garrantzitsua da gutxieneko informazio bat azaltzea.

Erabiltzaile berri bat gure kontura iristen denean zer ikusi behar du?

- Nor garen (izenak bertan zehazten badu hobe).
- Non gauden (Helbidea)
- Zer egiten dugun (esaldi batean azaltzeko gai izan behar gara).
- Ordutegia
- Kontaktua

Estiloari dagokionez, honakoak izango dira jarraitu beharreko irizpideak:

- **Hartzaileak**: Gure argitalpenen hartzaileak dira, lehenik eta behin, haurrak (familiak), nerabeak eta gazteak, eta ondoren, arloko profesionalak, udalaerriko beste eragileak edo komunitate osoa.
- **Mezua**: Gure hartzaileentzat interesgarria izan daitekeen informazioa komunikatuko dugu, modu zuzen eta argian; azpimarratu nahi duguna aurretik erabaki eta horri emango diogu indarra:
 - a) Haur, nerabe edo gazteentzako informazio interesgarria: gure zerbitzuetako programa, egitasmo eta albisteak, etab..
 - b) Sare sozialetan, gainera, zer garen irudikatu behar dugu, HNGen sustapena zertan datzan azaltzen dugula ziurtatu. Haurtxoko edo gaztelekuan egiten dugunaz gain, zer balio lantzen ditugun ere azaldu behar dugu, adibidez, eduki hezigarria argitaratuz, gai

zehatz bati buruzko “sentsibilizazio kanpainak eginez”... Horrela, egiten dugun lana azpimarratu eta gizartea ere gure lanaren garrantziaz ohartzea lortuko dugu. Esate baterako, horrelakoak eman behar ditugu aditzera gure argitalpenen bidez:

Jolastuz, berdinen arteko harremana sustatuz, dibertituz... ezin konta ahala gai jorratzen dira: aniztasunaren balioa, genero-berdintasuna, sormena, adiskidetasuna, euskara, adimen emozionala...

*Gure **ekintza-programa anitza eta zabala** da. Haur eta nerabeen beharrak dira oinarria, beraiek dira protagonistak, eta beren garapen emozional eta soziala, berriz, helburua. Ekimen bakoitzak bilatzen du haiek bizitzarako ahalduntzea, besteak beste, honako giza balio hauek landuz: elkartasuna, elkarlana, autonomia, herritartasuna, errespetua, erantzukizuna, elkarbizitza, tolerantzia...*

- **Hizkuntza eta arau sozialak:** Aurrez aurre komunikatzen garenean bezala, sarean ere lengoia ezberdinak erabiltzen jakin behar dugu. Gazteek beraien mintzaira dute, kode ezberdinak erabiltzen dituzte, eta garrantzitsua da guk hori kontuan hartzea. Hizkuntza formalegia erabiltzeak nerabe eta gazteak aldendu ditzake, erakunde publikoena ez baita erakargarria haientzat... Horrek ez du esan nahi esaten duguna eta esateko modua zaindu behar ez ditugunik, eredu izaten jarraitu behar baitugu. Baina hizkuntza sare sozial bakoitzari gure hartzaleei egokitu beharko diegu.
- **Irudiak:** Gure erabiltzaileen irudiak argitaratzeko kontuan hartu beharko dugu datuen eta irudien babesari, hau da, halakoak argitaratzeko baimena izan behar dugu. Gogoratu Kultura Digitala web-orrian [datuen eta irudien babesari](#) buruzko material interesgarriak dituzuela, baita ere gaiari buruzko ohiko galderak eta horien erantzunak ere.

Irudiak bankuetatik ere har ditzakegu (Pixabay, Pexels...), doakoak badira, egingo ditugun ekintzak azaltzeko (adb.: eskulanak egingo baditugu, haur bat eskulanak egiten irudikatzen duen argazki bat).

Posible balitz, ikus-entzunezkoak sortuko ditugu mezua erakargarriagoa izan dadin.

- **Parte-hartzea sustatu:** Erabiltzaileak sare sozialak erabiltzeko adin legala duenean, parte-hartzea sustatu dezakegu, galderak eginez, programazioa beraiekin sortuz... Erabiltzailearekiko harremana sendotzeko modu bat da.
- **Erantzukizuna:** Nor ordezkatzeko dugun jakin behar dugu, eta baita zer, nola eta non komunikatu. Kontuan hartu behar dira sare sozialen bizikidetzara-arauek eta erabilera-arauek.







Aurrez aurreko plan batean oinarrituta, sare sozialetarako beste plangintza bat osatu beharko dugu eta kontuan hartu beharko dugu horretarako zenbat denbora beharko dugun: barne-lana eta unean uneko argitaratze-lanak bereizi beharko ditugu.

Zer ekintza mota egingo ditugu?

- Informazioa zabaldu: Astean zehar zerbitzuan egingo diren ekintzen berri eman, zerbitzuari / arloari buruzko informazio orokorra zabaldu...
- Gai zehatzei buruzko informazioa zabaldu: landuko diren gaiari buruzko edo egun bereziei buruzko informazio hezigarria zabaldu.
- Egiten diren ekintzetan oinarritutako argazki eta bideoak partekatu.
- Zuzenekoak...
- Txantiloiak, irudiak, eta abar prestatu. Hilabetean zehar egingo diren ekintzetarako beharko ditugun materialak prestatu.
- Sortu dugun plangintza oinarri hartuta, sare sozialetan argitalpenak programatu. Doako programa asko daude (Metricool, Meta Business Suite, Hootsuite...).
- Gogoratu beti traolak erabiltzeaz #herriarenIzena #Gipuzkoa #gaztelekuaX #LantzenAriGaregia (Adb.: sorkuntza, berdintasuna, euskara...) eta abar.
- Argitaratzen duguna beste norbaiti helarazi nahi badiogu, etiketatu egin beharko dugu @udala, @besteGaztelekuBat @gipuzkoangazte @Komunikabideak...



Plangintza egin baino lehen, lagungarria izango zaigu beste udalek nola komunikatzen duten ikustea. Ondo eginak kontuan izango ditugu, eta, akatsen bat identifikatuko bagenu, zer ez egin jakiteko baliatuko dugu. Ondokoen esperientziak ezagutzea beti da baliagarria.



Komunikazio-plan orokorra edota sare sozialetako plangintza egiterakoan hainbat gauza hartu behar ditugu kontuan, hala nola:

- **Egoeraren analisisia**

Udal guztien egoera ez da berdina: zerbitzu-kopurua, baliabideak, eta abar. Udal bakoitzak bere egoera aztertu beharko du eta sare sozialetan epe labur, ertain eta luzean hartuko duen estrategia definitu.

- **Helburuak eta hartzailleak**

Garrantzitsua da helburuak ondo zehaztea. Helburu orokorrak (epe luzera) eta helburu zehatzak zehaztuko ditugu. Azken horiek neurgarriak eta errealistak izatea komeni da. Iraupen bat ere jarri beharko genieke, behin data pasata, lortu ditugun edo ez ikusi eta, behar izanez gero, estrategia aldatu.


- **Erabiliko ditugun sare sozialak aukeratu**

Nahiz eta, ustez, badakigun gure hartzailleak non mugitzen diren, egun batetik bestera espazio edo sare sozial berriak sortzen dira. Garrantzitsua da gure herriko nerabeak, gazteak, gurasoak non dauden jakitea, gure ahaleginak leku batean edo bestean kokatzeko. Dagoeneko erabiltzen ditugun sare sozialak berriz aztertu behar ditugu eta zeintzuk eta zertarako erabiliko ditugun zehaztu.

Hausnarketa egin eta aukera berriak aztertu ondoren, gure eskaintza zehazteko unea iritsiko da. Sare edo plataforma bakoitzean erabiliko dugun estrategia erabaki behar dugu, hainbat ezaugarri kontuan hartuz: behar ditugun baliabideak, eskainiko diogun denbora, sareak kudeatuko dituzten hezitzaileak...; ezinbestekoa izango da dena ondo zehaztu eta idatziz jasotzea.

Ez dugu sare sozial guztietan egon beharrik, bakoitzak bere herriko errealitatera egokitu beharko du erabiliko duen estrategia. Sare sozial bakoitzak funtzio eta helburu desberdinak dituela kontuan hartu behar dugu eta hartzaillea eta maiztasuna ondo zehaztuko ditugu. Honakoak dira, gaur egun, kanal nagusiak.

- **Instagram eta Tik Tok:** Gazteek gaur egun gehien erabiltzen dituzten sare sozialak dira. Argazki eta bideoak dira protagonista.
- **Facebook:** Erabiltzaile gehien dituen sare soziala da eta, beraz, komeni da bertan presentzia izatea. Kanal hau erabiltzen dutenen profila zabala da: gurasoak, helduak, herriko eragileak...
- **Twitter:** Herriko erakunde, eragile eta udaleko beste departamentuek sare hau erabiltzen badute, beraiei jarraitzea komeni da eta beraiekin interakzioa sortzea.
- **Youtube:** Ikus-entzunezko piezek balio handia dute; gure lanari balio erantsi handia eman diezaiokegu kanal honen bidez.



● Sare sozialen plangintza egin

Zehaztu ditugun helburuak garrantziaren eta erraztasunaren arabera sailkatuko ditugu eta lehentasunak definitu. Ondoren plana diseinatuko dugu:

- Helburua zehaztu eta zer hartzaileri dagokion idatzi.
- Hori lortzeko, zer egingo dugu?
- Edukiak eta landu nahi ditugun gaiak definituko ditugu. Zer formatu erabiliko dugun ere pentsatuko dugu (argazkiak, bideoak, infografiak...)
- Nork egingo du?
- Maiztasuna eta kanala ere zehaztuko ditugu.
- Nola egingo dugu? Baliabide pertsonalak, ekonomikoak, materialak...
- Noiz?

● Egutegia

Ekintza guztiak zehaztu ondoren, kronograma edo egutegi batean txertatuko ditugu. Egutegi hau izango da gure ibilbide-orria; izan ere, hemen bilduko dira gure plangintzaren xehetasun guztiak. Hurrengo hileko plangintza edo hiruhilekoa egingo dugu eta astero erreparasatuko dugu. Gogoratu Kultura Digitala webgunean [sare sozialen plangintza](#) egiteko material interesgarriak dituzuela!

● Aurrekontua

Plangintza egiterakoan daukagun aurrekontua eta ekintza bakoitza burutzeko beharko duguna ere kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsua dira.

● Ebaluazioa

Garrantzitsua da prestatu dugun plangintza ebaluatzea. Honela, ondo eginak, hobetzekoak eta kontuan hartzekoak zeintzuk diren ikusiko dugu eta horrek aukera emango digu etorkizunean gure estrategia moldatzeko. Bizia da eta etengabe eguneratu behar dugu: aktualitatea, tendentziak ezagutu eta gure hartzaileak non dauden jakin beharko dugu. Programatzeko aplikazioak erabiltzen baditugu (Metricool, Meta Business Suite, Hootsuite...), sare sozialen metrikak jaso ahal izango ditugu: sare bakoitzean ditugun erabiltzaileak zein diren, zer argitalpen ikusi den gehien, eta abar.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



GAZTEMATIKA
Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa

